

Orioko Udalak

Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren Aurrerapenaren Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa

2015eko abendua



ORIOKOU DALA



UDALERRI
EUSKALDUNEN
MANKOMUNITATEA



Gipuzkoako Foru Aldundia





1. SARRERA.....	4
2. ORIOKO DATU OROKORRAK.....	5
2.1. Kokapena.....	5
2.2. Datu demografikoak.....	5
2.3. Datu soziolinguistikoak.....	7
2.4. Datu sozioekonomikoak.....	9
2.5. Ekipamenduak eta azpiegiturak.....	11
2.6. Etxebitzitzak	11
3. PROIEKTUEN DESKRIBAPENA.....	13
3.1. HAPOa	13
3.2. Mutiozabal.....	13
3.3. Dike	15
3.4. Palotak	17
3.5. Frontoia.....	20
3.6. Aizperro.....	22
4. EBALUAZIO-PROZESA.....	24
4.1. Emandako urratsak.....	24
4.2. Ebaluazio Taldea.....	25
4.3. Elkarrizketak.....	27
4.4. Tresna eta metodologia.....	28
5. ERAGIN LINGUISTIKOA.....	31
5.1. Eragina orokorean.....	31
5.2. Indize osagarriak.....	32
5.2.1. Hauskortasun-indizea.....	32
5.2.2. Proiektuaren eraginaren indizea	33
5.2.3. Euskararen ezagutzaren proiekzio-indizea.....	34



5.3. Eragina projektuka.....	37
5.3.1. Mutiozabal	37
5.3.2. Dike.....	39
5.3.3. Palotak.....	41
5.3.4. Frontoia.....	43
5.3.5. Aizperro.....	44
6. ONDORIOAK ETA NEURRI ZUZENTZAILEAK.....	46
6.1. Ondorio orokorrak	46
6.2. Neurri zuzentzaileak.....	47
6.3. Neurri zuzentzaileak: epeak eta segimendua.....	52
7. PROIEKTUAREN BALORAZIOA.....	53
8. ERANSKINAK.....	56
8.1. Elkarrizketetan adierazitako eduki nagusiak.....	56
8.2. Galdetegi luzeak.....	62
8.2.1. Mutiozabal	62
8.2.2. Dike.....	76
8.2.3. Palotak.....	92
8.2.4. Frontoia.....	107
8.2.5. Aizperro.....	119
8.3. Puntuazioak	128
8.3.1. Mutiozabal	128
8.3.2. Dike.....	134
8.3.3. Palotak.....	140
8.3.4. Frontoia.....	146
8.3.5. Aizperro.....	152



1. Sarrera

4.

2014. urtean Orioko Udalak Hiri Antolamendurako Plan Orokorr berria lantzko prozesua abiatu zuen. Aurrerapen dokumentua prest dago, herritarren ekarpenak ere jaso dira prozesuan zehar, eta orain etorkizuneko Orio nolakoa izango den erabakitzeko unea iritsi da. Horretarako, aurretik aurrerapenak jasotzen dituen aukeren eragin linguistikoaren ebaluazioa egin nahi izan du Orioko Udalak.

Eragin Linguistikoaren Ebaluazioaren helburua da eremu jakin bateko egitasmoek bertako errealitate linguistikoan izan ditzaketen balizko eraginak aurreikustea, identifikatzea eta ebaluatzea. Halako jarduera batek euskararen hizkuntza-komunitateari kalterik eragin diezaiokeela aurreikusiz gero, kalte hori murrizteko edo aurrea hartzeko proposamenak edo neurri zuzentzaileak zehazten dira ebaluazio-prozesuan.

Eragin Linguistikoa egiteko prozedura eta tresna Gipuzkoako Foru Aldundiak, Euskararen Gizarte Erakundeen Kontseiluak eta Udalerrirako Euskaldunen Mankomunitateak sortu dute elkarlanean. Hori hartu dugu oinarritzat Orioko aurrerapen-dokumentuak jasotzen dituen balizko egitasmoak hizkuntzaren ikuspegitik ebaluatzeko.

Txosten honetan jaso ditugu Orioko datu orokorrak, aurrerapen-dokumentuak jasotzen dituen egitasmo nagusien deskribapena, horien eragin linguistikoa eta eraginaren gaineko irakurketa eta neurri zuzentzaileak. Halaber, azterketa hori egiteko jarraitu dugun prozesua eta metodologia ere deskribatu ditugu, eta eranskin moduan jaso galdetegien emaitzak.

Amaitzeko, gure eskerrik beroenak adierazi nahi dizkiegu prozesu honetan bidelagun izan ditugun Orioko Udaleko eta Uemako lankideei, erakutsi duten gogoarengatik, egindako lanarengatik, emandako laguntzarengatik eta prozesuan zehar izan duten konpromisoarengatik.




2. Orioko datu orokorrak

5.

2.1. Kokapena

Orio Gipuzkoako Lurralde Historikoan eta Urola Kostaldeko eskualdean dago kokatuta. 11 udalerrik osatzen dute eskualde hori; horietatik lau kostaldean daude (Zumaia, Getaria, Zarautz eta Orio) eta gainerakoak barrualdean (Azkoitia, Azpeitia, Beizama, Errezi, Zestoa, Aizarnazabal eta Aia).

Iparraldetik Kantauri Itsasoarekin egiten du muga, ekialdetik Donostia eta Usurbilekin eta hegoalde eta mendebaldetik Aiarekin. Guztira 9,81 km²-ko azalera du.



2.2. Datu demografikoak

Gaur egun 5 800 biztanle inguru bizi dira Orion (2014ko datuak); horietatik, % 50,7 gizonezkoak eta % 49,3 emakumezkoak.

Bilakaerari erreparatuz gero, XX. mendean zehar biztanleriaren hazkundea pixkanakakoa eta etengabea izan da 1981. urtera arte. 80ko hamarkadan, beriz, Oriok biztanleak galdu zituen, eskualdeko eta probintziako gainerako udalerri gehienek bezala. Mende berriarekin, ordea, hazkunde demografikoa bizkortu egin da modu ikusgarrian. 2001-2013. urteen bitartean urtero batezbeste % 1,92 hazi da Orioko biztanleria, eskualdeko hazkuntza-tasaren (% 0,88), Gipuzkoakoaren



2. Orioko datu orokorrak

6.

(% 0,40) eta EAkoaren (% 0,35) oso gaietik. Horrela, azken hamabi urteetan ia % 30 hazi da Orioko biztanleria.

Hazkunde horretan hainbat faktorek eragin ahal izan dute: batetik, azken urteetan biztanleriak kostalderako joera hartu du, kostaldeko udalerrien hazkuntza demografikoa eraginez; bestetik, Orioren garapen urbanistikoa sustatu da, etxebizitza berriak eraikiz eta A-8 autopistarako sarbide zuzena eginez.

Hazkunde horren ondorioz, Orioko biztanleria hazi egin da bi zentzutan. Alde batetik, Oriok berezko hazkunde positiboa izan du azken urteetan. 2000. hamarkadatik aurrera, jaiotza-tasak gora egin du eta urteroko berezko hazkundea ia 30 lagunera iristen da. Datu hori eskualdeko eta Gipuzkoako datuen gaietik dago. Izan ere, Orioko biztanleriaren profila gazteagoa da eskualdekoa eta Gipuzkoakoa baino. 0-9 urte bitarteko eta 35-44 urte bitarteko presentzia handiagoa da Orion, azken urteetan gazteak erakartzeko izan duen ahalmen handiagoaren ondorioz.

Eta hor sartzen da bigarren faktorea: migrazio-saldo positiboa. XXI. mende hasieratik hona urtero batezbeste 75 lagun inguru etorri da Oriora bizitzera. Horietatik % 40 inguru EAko beste lurralte batzuetatik etorritakoak izan dira eta eta % 60, berriz, EAE kanpotik etorritakoak.


Amaitzeko, biztanleen jatorriari dagokionez, Orion bertan jaiotako biztanleen proportzioak behera egin du azken urteetan eta EAEtik kanpoko biztanleenak, berriz, gora. Hona hemen 1996. eta 2013. urteetako datuen konparaketa:



2. Orioko datu orokorrak

7.

Orioko biztanleen jatorria



EAETik kanpo jaiotakoen artean, Spainiatik datorren populazioak behera egin du, eta Spainiatik kanpo jaiotakoen artean amerikarrak eta afrikarrak dira nagusi.

2.3. Datu soziolinguistikoak

Orio udalerri euskalduna da eta 2002az geroztik Udalerrri Euskaldunen Mankomunitateko kide da. Bere euskararen indizea % 83,1ekoa da gaur egun; % 76 dira euskal hiztunak, % 13 ia euskaldunak eta % 10, berriz, erdaldunak, 2011ko datuen arabera.

Bilakaerari erreparatuz, euskararen indizeak behera egin du azken urteetan, eta nagusiki azken 15 urteetan. Ordura arte, euskal hiztunen kopurua egonkorra zen edo gorantz egin zuen apur bat; 2001. urtetik aurrera, ordea, hizkuntza-gaitasunean beheranzko joera nabari da. Jaitsiera ez da esanguratsua, baina joera bat adierazten du. Adinari dagokionez, euskaldunen proportziorik handiena gazteenen artean dago. 20 urtetik beherako adin-tarteetan ia denak dira euskaldunak. Kanpotik datozen haur eta gazte batzuk badira euskaraz ez dakitenak, baina eskolari esker ia erabat lortzen dute euskara ikastea.


Helduen artean, arrakasta nabarmena izan du aurtengo ikasturtean helduen euskaldunze-alfabetatzerako kanpainak. Doakotasunaren bidetik jo du Udalak, eta matrikula-kopurua izugarri hazi da.



2. Orioko datu orokorrak

8.

Euskara-gaitasunaren bilakaera



Lehen hizkuntzari dagokionez, 2011ko datuen arabera oriotarren % 64rentzat da euskara lehen hizkuntza. Ehuneko hori 1996. urtean baino 10 puntu baxuagoa da. Gora egin dute batez ere lehen hizkuntza gaztelania edota biak (euskarra eta gaztelania) dutenen kopuruek.

Etxeko hizkuntzaren bilakaeran ere atzematen da beherakada hori. 1991. urtetik 20 puntu egin du behera euskarak etxeko hizkuntza moduan. Gaztelania edota bi hizkuntzen erabilera, berriz, bikoiztu egin da tarte horretan.

Erabilerari dagokionez, 2013ko kale-erabileraren neurketaren arabera, % 66koa da. Haur eta gazteen adin-tartean dago erabilera-tasa altuena, % 88 ingurukoa. Baxuena, berriz, helduen adin-tartean, % 55ekoa.

Euskaraz Bizi Bizi Plan Estrategikoan jasotzen den diagnostikoaren arabera, alor batzuetan nabarmen hobetu da erabilera (administrazioa, tokiko hedabideak, irakaskuntza, kirola...), baina, aldi berean, euskara indarra galtzen ari da bere-bereak



2. Orioko datu orokorrak

9.

zituen hainbat esparruetan (etxeen, bereziki, baina baita lagunartean ere).

Egitura eta baliabideei dagokionez, hona hemen informazio esanguratsuena:

- Orion bi ikastetxe daude eta bietan D eredua baizik ez dago. Bi ikastetxeek abian dituzte hizkuntza-normalizaziorako programak.
- Orioko Udalak euskaltegia dauka. Lokala Udalak jartzen du eta klaseak AEK-k ematen ditu. Udalak ordaintzen ditu klaseak eta doan izaten dira ikasleentzat, betiere probetxua ateratzeko baldintzarekin.
- Udalak Euskara Zerbitzua du. Erabilera-plana eta Euskaraz bizi-bizi Plan Estrategikoa onartuta eta indarrean ditu.
- Orioko Udalak Udalerri Euskaldunen Mankomunitateko kide da 2002az gerontik.
- Gaztelekua dago duela bospasei urtetik, Txurrumuski aisialdi-elkarreka kudeatuta.
- Udalak Ludoteka ere badauka, 2015. urtetik martxan, Udalaren menpekoa eta aisialdi-elkarreka kudeatua.
- Haurreskola ere badago Orion, Udalarena, eta Partzueroko langileekin.
- Urola Kostako Udal Elkartarekin lankidetzen hainbat programa sustatzen dira normalizazioari begira, esate baterako, KALEKO egitasmoa, merkataritzaren alorrean eragiteko edota EUSKARA SASOIAN kirol-alorrean eragiteko. MINTZALAGUN programa ere martxan dauka.
- Euskarazko hedabideei dagokionez, hona hemen eskaintza: *Karkara*, Orio eta Aiako berriak jasotzen dituen aldizkaria, *Karkara* Taldeak argitaratzen duena; *karkara.eus* webgunea; *Urola Kostako Hitza*; eta nazio mailakoak.

2.4. Datu sozioekonomikoak

Orio itsasoari lotutako herria izan da. XX. mende amaiera arte, arrantza izan da



2. Orioko datu orokorrak


10.

herriko ekonomia-jarduera nagusia, nekazaritzarekin osatuta.

Azken hamarraldietan ere, sektore ekonomikoen arteko banaketa aldatuz joan da. Nekazaritzak nabarmen galdu du pisua, 1981. urtean jarduera osoaren laurdena izatetik ia desagertzeraino. Industriaren pisua ere erdira jaitsi da urte horietan eta zerbitzuen sektorea, berriz, hirukoitzu egin da. Arrantzari dagokionez, 2013. urtean 7 ontzi geratzen ziren soilik, baxurakoak.

Hona hemen 2011ko datuen araberako banaketa:

Sekture ekonomikoak (2011)



Orioko enpresa eta establezimenduen tamaina oso txikia da. Enpresen % 96 mikroenpresak dira, 10 langile baino gutxiagoko establezimenduak. Edonola ere, enpresa-kopuruak gora egin du azken urteetan.

Edonola ere, oriotar gehienek udalerritik kanpo egiten dute lan eta kopuru hori gorantz doa gainera. 2011. urtean % 25 inguru zen udalerrian bertan lan egiten zuen biztanleria. 10 urte lehenago 10 puntu altuagoa. Beraz, enplegua ez da izan kanpoko jendea Oriora bizitzera erakartzeko faktorea.

Bukatzeko, langabezia-tasa % 12,7koa zen 2014. urtean. Azken 15 urteetan nabarmen



2. Orioko datu orokorrak

11.

igo da, ia laukoiztu egin baita. Hala ere, datua eskualdekoa (% 13,8), Gipuzkoakoa (% 14,2) eta EAeko (% 16,3) baino baxuagoa da.

2.5. Ekipamenduak eta azpiegiturak

Orioko udalerriak honako zerbitzuak eta ekipamenduak ditu, besteak beste:

- Bi ikastetxe, publikoa eta Ikastola
- Kiroldégia eta kirolerako bestelako espazioak (kirol-portua, Arraunetxe...).
- Kultur etxea
- Gaztelekua
- Gaztetxea
- Euskaltegia
- Ludoteka
- Haurreskola
- KTA kultur tailerra
- Osasun-etxea
- Turismo-bulegoa
- Kanpina
- Parkeak, bidegorriak, aisiaaldi rako guneak...

Garraio-azpiegiturei dagokienez, Oriotik igarotzen diren errepide nagusiak GI-634 kostako errepidea eta AP-8 autopista dira. Garraio publikoa sustatzeko, Euskotrenen zerbitzuak daude, batetik, tren-zerbitzuak eta, bestetik, autobus-zerbitzuak. Oinezkoentzat eta bizikletan ibiltzeko hainbat ibilbide-zati daude egokituta.

2.6. Etxebizitzak

Orioko biztanle gehienak hirigunean bizi dira. % 5era ez da iristen landa-ingurunean bizi den populazioa. Horiek batez ere San Martinen eta Ortzaika eremuan bizi dira.

Guztira 2.670 etxebizitza inguru daude herrian. Batezbeste 2,63 biztanle dago bakoitzean; ratio hori beherantz badoa ere, inguruko udalerriekin alderatuta, altuagoa da.



2. Orioko datu orokorrak

12.

Etxebizitza horietako % 19 hutsik daude. Horietatik erdia gutxi gora behera, bigarren etxebizitza moduan erabiltzen da eta, gainerakoa, berriz, hutsik dago, saltzeko dagoelako, beste erabilera batzuetara zuzendu delako (Bulegoak,...), birgaitze-premian dagoelako, etab.

Bilakaerari erreparatuz, azken 15 urteetan izugarri hazi da etxebizitza-parkea, batez beste, urtero % 2,9. 1997-2013 aldian % 57,5 hazi da etxebizitza-kopurua gutxi gora behera. Etxebizitza horien prezioa inguruko udalerrietakoa baino baxuagoa izan da eta hori ere aldagai garrantzitsua da jendea erakartzeko.



3. Proiekturen deskribapena

13.

3.1 HAPOa

Aurrera begira jarri eta etorkizuneko Orio zirriboratzeko eta aurreikusteko, Orioko Udalak Hiri Antolamenduko Plan Orokorra (HAPOa) landu du, eta herritarren ekarpenekin osatuta, aurrerapen-dokumentua mahai gainean dauka, onartzeko bidean.

Plan Orokorean zehaztuko da etorkizunean Oriok nolakoa izan behar duen: hazi behar duen edo ez, etxebizitza gehiago eraiki behar diren eta non eta nolakoak, azpiegiturak non eta nolakoak izango diren, zer eremu babestuko diren... Plana mardula da, konplexua, baina etorkizunean Orion izan dezaketen eragina aztertuta, funtsean bost aktuazio-eremu nagusi planteatzen dira, eta, gainera, horien gaineko erabakiren bat hartu beharko du Udalak epe laburrean: Mutiozabal, Dike, Palotak, frontoia eta Aizperro. Eremu horietako bakoitzean, gainera, aukera bat baino gehiago jarri da mahai gainean.

3.2 Mutiozabal

Oria itsasadarraren ezkerraldean (ibaian behera) kokatutako eremua dugu hau. Gaur egun inguru degradatua da, garai hobeak ezagutu zituena, eta HAPOan komenigarritzat jotzen da eremua birgaituko eta onbideratuko duten proposamenak zehaztea.

Inguruak baditu ezaugarri eta baldintza berezi batzuk: forma luzexka, ibaiak eta errepideak mugatuta, eta errepidearen beste aldean trenbidea eta tren-geltokia; itsasoko eta lehorreko jabari publikoaren ondoan dago, eta zati batean jabari horren zortasun-zonaren barruan... Horregatik, ez da erraza eremuaren hirigintza-antolaera egoki zehaztea. Halaber, badaude eraikin bereziak: kontserba-fabrika izandakoa, ontziola...



3. Proiektuen deskribapena


14.

Gaur egun, herritarrak ez dira joaten Mutiozabalera, herritarrek ez dute aprobetxatzen, baina proiektuak aurrera eramanet gero, espazio hori herritarrentzat izango litzateke, ibaiaren ondoan parkea eta ibilbide bat jarrita, eta ontziola mantentzeak eta ekipamenduren bat jarri gero, jendea joan-etorrian has daiteke, bisitak izan daitezke...



Funtsean, hiru aukera proposatzen dira:

Lehen aukera, gaur egungo Plan Orokoreko da, ordenaziokoa, baina Arin y Embil eta Mutiozabal ontziolaren atzeko eraikinetan ordezkapenak eginda.




Bigarren aukera, zonaldea osorik eraldatzea proposatzen da, bi kotatan garatuta




3. Proiekturen deskribapena

15.

eta erio aldera ibai-parkea eratuta. Bizitegi-erabilera rako 7742 m² aurreikusten dira, 86 etxebizitzatan.



Hirugarren aukeran, eraldaketa bideragarriagoa izateko, gaur egungo bizitegiko eraikinak eta Mutiozabal ontziola mantentzea proposatzen da, bi kotatan eta ibai-parke batekin. Aurreko bien tartekoa da.



3.3 Dike

Oria itsasadarraren ertzean kokatua dago, Aramendi eta Arozena eremuen artean, eta etxebizitza-erabilpenetara zuzendua dago indarrean dagoen planeamenduan. Plan Berezia 2008an onartu zen, eta Urbanizatzeko Jarduketa Programa 2009an, baina ez da eman aurrerapausorik. Kontuan izanik indarrean dagoen planeamenduko antolamendu-eredua eta eremuaren ezaugarriak (lur laua, Orioko erdigunean eta



3. Proiekturen deskribapena

16.

Oriako itsasadarrean, kalitate handikoa...) bidezkoa ikusten da beste antolamendu-aukera batzuk proposatzea, batez ere hiri-lurreko eremu horren erabilpena optimizatzearen, garapenaren intentsitatea eta kalitatea orekatuz. Inguru hau garrantzitsua da, herriak dagoeneko bereganatu egin duelako, ibaiertzeko pasealekuaren bidez.



Horregatik guztiagatik, hiru aukera proposatzen dira, batez ere eraikitzeko etxebizitzakopuruan dago aldea:

Lehen aukera, gaur egungo Plan Orokorrak jasotakoa gauzatzea. Bi eraikin-lerrotan, bizitegi-erabilerarako 13 863 m² aurreikusten dira, 150 etxebizitzatan.







3. Proiekturen deskribapena

17.

Bigarren aukeran, bizitegi-erabilerarako 18.000 m² aurreikusten dira, 200 etxebizitzatan.



Hirugarren aukeran, bizitegi-erabilerarako 22.550 m² aurreikusten dira, 250 etxebizitzatan, eta Arozenari dotazio publikoko izaera ematea.



3.4 Palotak

Gaur egun ez-urbanizagarri modura sailkatutako lurak osatzen dute eremu hau. Gutxi gorabehera 8 hektarea ditu. Oriako itsasadar ertzean kokatua dago, eta, horregatik, Kostari buruzko Legearen proposamenek eragin zuzena dute.

Funtsean, hiru aukera proposatzen dira:



3. Proiekturen deskribapena

18.



Lehen aukeran, gaur egun dagoen bezala uztea da, bere horretan.



Bigarren aukeran, eremua guztiz garatzea proposatzen da, dentsitate altuekin: bizitegi-erabilerarako 69 000 m², 766 etxebizitzatan.



3. Proiekturen deskribapena

19.



Hirugarren aukeran, tarteko zerbait proposatzen da, zati bat garatzea eta beste zati erreserbarako uztea. Bizitegi-erabilerarako 22 500 m² aurreikusten dira, 250 etxebizitzatan.





3. Proiekturen deskribapena

20.

3.5 Frontoia

Indarrean dagoen planeamenduak zehazten eta mugatzen duen azpieremutako bat da. Eusko Gudari kalera aurre ematen duten etxebizitza-multzo batek osatzen du, bestek beste, azpieremu hori. Horien atzealdean dago kokatua egungo frontoi publikoa.

Aspalditik egoera hobetu nahian ari da Udala, eta hori lotuta dago frontoia lekuz aldatzearekin. Frontoiaren erabakia, ordea, ez da erraza, argitu gabe baitaude beste zenbait galdera: non kokatuko da frontoi berria? Zer erabilera izango du frontoiak (soilik pilotarako edo beste jarduera batzuetarako, leku estalia izanik)?...

Proiektu honek eragin handia izango luke ingurua biziberritzeko, are gehiago kontuan izanik han inguruan daudela beste ekipamendu batzuk: kultur etxea, ludoteka, musika-eskola... Ekipamendu horiek behetik gorako ardatz bat osatzen dute, herriaren goialdera, eta jendea gora igotzen hasi da dagoeneko; frontoiko aktuazioarekin, berriz, beste ardatz bat sortu nahi da, horizontala, Pelotari kaleari segida emango diona eta goialdekoari lotua.





3. Proiekturen deskribapena

21.

Hiru aukera daude mahai gainean:

Lehen aukeran, gaur egungo Plan Orokoreko da. Frontoia lekuz aldatuta, barruko kale bat zabaldu. Frontoi txiki estali bat egin. Bizitegi-erabilerarako 2 673 m² aurreikusten dira, 30 etxebizitzatan, eta 60 garaje-plaza.



Bigarren aukeran, zonaldea biziberritzea planteatzen da. Bizitegi-erabilerarako 2 960 m², 33 etxebizitzatan, eta 60 garaje-plaza.



Hirugarren aukeran, zonaldea biziberritzea planteatzen da. Bizitegi-erabilerarako 4 000 m², 44 etxebizitzatan.



3. Proiekturen deskribapena

22.



3.6 Aizperro

Plan Orokorrak Orioren eta oriotarren jarduera ekonomikoei buruzko beharrei erantzuna eman behar die, gutxi gora behera 8 urteen denboraldirako. Hori bai, erantzun hori helburu horretarako lur eta eraikuntza egokiak aurreikustearekin lotua dago, eta jarduera ekonomikoen eskaintzaren dibertsifikazioarekin lotuta, bai industria konbentzionalerako, bai hirugarren sektorerako egokitzat jotzen da Aizperro ingurua.



Aizperroren kasuan, bi aukera daude mahai gainean:

Lehen aukera, gaur egungo Plan Orokorreko da, eta proposatzen da Aizperro inguruan, autopistako sarrera-irteera inguruan, industrialde bat eraikitzea, industria-



3. Proiekturen deskribapena

23.

erabilerarako 36 000 m² izango dituena.



Bigarren aukeran, bere horretan uztea proposatzen da, ezer ere ez egitea.





4. Ebaluazio-prozesua

24.

4.1 Emandako urratsak

Hona hemen proiektu horetan eman ditugun urrats nagusiak:



Hasteko, aurrelanetan, proiektuaren inguruko informazioa eskuratu eta **aurrelanak** egin genituen, batez ere datu-bilketa, ebaluazioa marko egokian egiteko. Horretarako, iturri hauek erabili genituen: Orioko datu orokorrak, Orioko HAPOa, Orioko “Euskaraz bizi-bizi” Plan Estrategikoa, Eustateko datuak, Gipuzkoako datu soziolinguistikoak...

Aurrelanak martxan jartzearekin batera, **Ebaluazio Taldea abian jarri** genuen. Ahalegindu ginen talde horretan bat egin zezaten Orioren eta hirigintza-asmoen gaineko ezagutzak, Eragin Linguistikoa Ebaluatzeko tresnaren gaineko jakintzak eta Elhuyar Aholkularitzaren eta Projektaren eskamentuak.

Hasteko, Ebaluazio Taldeak ebaluatu beharreko **proiektuak identifikatu** zituen, galdetegi laburra bete ondoren, guztira bost: Mutiozabal, Dike, Palotak, frontoia eta Aizperro; izan ere, ikusi zen horiek izan zitezkeela Orion eragin linguistiko handiena izan zezaketen proiektuak. Halaber, Taldeak erabaki zuen horietako bakoitza eta



4. Ebaluazio-prozesua

25.

aukeretako bakoitza banan-banan ebaluatzea, bazituztelako nahikoa berezitasun, bai kokalekuaren aldetik, baita helburu eta emaitzei zegokienez ere. Projektua denboraren aldetik oso epe estuetan egin behar zenez (abenduan, 2015. urtearen amaierarako), erabaki genuen teknologiez baliatzea, eta galdegegiak betetzeko eta puntuazioak emateko sarean lan egitea. Hasteko, ordea, galdegegi luze bat beteta eraman eta elkarrekin errepasatu genuen, irizpideak bateratzeko, zalantzak argitzeko eta ondorengo galdegegiak ere horren arabera betetzeko. Horrekin batera, **elkarritzetak** bideratu genituen, eragileen eta herritarren ikuspegia ere proiektuan txertatzeko eta informazio osagarria eta garrantzitsua lortzeko.

Gero, **ebaluazioa gauzatzen** joan ginen pixkanaka, proiektuz proiektu, ebaluaziorako galdegegi zehatzak eta puntuazio-taulak osatzen eta batez ere guztiari koherentzia ematen, datu esanguratsuenak identifikatzen, indizeak kalkulatzen eta proiektuek hizkuntzan nolako eragina izan zezaketen ebaluatzen.

Azkenik, egindako guztia **txosten honetan jasotzen** joan ginen pixkanaka, eta aurkibidea edo eduki nagusiak ere Taldean erabaki genituen, baita ondorenean ontzat jo ere.

4.2 Ebaluazio Taldea



Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa egiteko, berariazko Ebaluazio Taldea sortu genuen,



4. Ebaluazio-prozesua

26.

ondorengoeik osatua:

- Orioko Udaletik, **Pilar Azurmendi** (udal-arkitektoa) eta **Jabier Zabaleta** (euskarateknikaria), inguruaren eta gaiaren ezagutza sakona ziurtatzeko.
- Uematik, **Goizane Arana** (teknikaria), ELE tresnaren inguruko ezagutza ziurtatzeko.
- Proiektuaren bideratzaileak, Elhuyar Aholkularitzatik **Oihana Garcia** (koordinatzailea) eta **Imanol Azkue** (teknikaria) eta Projektatik **Miren Vives** (arkitektoa), proposamenean adierazitako helburuak beteko zirela ziurtatzeko.

Ebaluazio Taldearen xede nagusia izan zen HAPOaren Aurrerapenak jasotzen dituen egitasmoak aztertzea, horietatik identifikatza Orion eta Orioko gune edo auzo batzuetan eragin linguistikoa izan zezaketenak, horien inpakta ebaluatzea eta kuantifikatza eta neurri zuzentzaileak proposatzea.

Ebaluazio Taldeak **lau bilera** egin zituen, eta hona hemen, laburbilduta:

1. bilera	2. bilera	3. bilera	4. bilera
2015-12-02	2015-12-11	2015-12-18	2015-12-21
<ul style="list-style-type: none">-Taldea eratu.-Egitasmoan kokatu.-Proiektuak hautatu.-Galde tegi laburraak bete.	<ul style="list-style-type: none">-Galde tegi zehatzak eta zalantzak:Mutio zabal.	<ul style="list-style-type: none">-Mutio zabaleta Dike proiektuak: ondorioak eta neurriak.-Elkarritzekatik.	<ul style="list-style-type: none">-Palotak, frontoia eta Aizperro proiektuak: ondorioak eta neurriak.-Proiekzio-indizea.-Txostenak.



4. Ebaluazio-prozesua

27.



4.3 Elkarrizketak

Ebaluazio Taldeko lanaren osagarri, ebaluazioa egiteko orduan herriko eragileen eta herritarren ikuspegia ere kontuan hartzea garrantzitsua zenez, elkarrizketa batzuk egin genituen, Orioko zenbait eragileren iritzia jasotzeko honako hauen inguruan: orain arte herrian gertatutako aldaketek hizkuntzaren ikuspegitik izan duten eragina, eragin hori apaltzeko hartu diren neurriak, aurrera begira HAPOaren baitan proposatzen diren aldaketek izan dezaketen eragina, eragin hori txikiagotzeko prebentzio-neurriak edo neurri zuzentzaileak... Elkarrizketa edo kontraste-saio horien bidez informazioa lortu nahi izan genuen ebaluazioa egiteko.

Ondorengo hauek elkarrizketatu genituen:

- **Juanjo Zubizarreta** (Zaragueta herri-eskola)
- **Rikardo Uzkudun** (Karkara herri-aldizkaria)
- HAPOan ibilitako herritarak: **Garbiñe Manterola** (Herrio natur taldea) eta **Imanol Agirre** (arkitektoa)



4. Ebaluazio-prozesua

28.

Ikastolako ordezkariekin egoteko ahalegina egin genuen, baina azkenean ez genuen lortu.

Oro har, elkarritzetatik informazio eta ekarpen interesgarriak jaso genituen, bakoitzak bere ikuspegitik eginak, eta baliagarriak izan ziren ebaluazio honetan txertatzeko.

Elkarritzetako eduki nagusiak eranskinetan daude jasota (ikusi 53. orrialdea).

4.4 Tresna eta metodologia

Orioko Hiri Antolamenduko Plan Orokorraren proiektu nagusiek izango zuten eragin linguistikoa neurtzeko lanabes nagusia ebaluaziorako tresna izan da. Tresna hori Gipuzkoako Aldundiaren, Uemaren eta Kontseiluaren hitzarmen eta elkarlanaren ondorioz jaio zen, eta xede nagusitzat dauka lurralte-eremu (auzo, herri, hiri, eskualde) jakin bateko proiektu eta jarduera pribatu zein publikoek bertako errealitate linguistikoan izan ditzaketen balizko eraginak aurreikustea, identifikatzea eta ebaluatzea. Horretarako, berariazko tresna bat sortu zen, ingurumen-eragina neurtzeko erabiltzen den SIN CANTER izenekoan oinarritua.

Lehenik eta behin, Ebaluazio Tresnan bi galdelegi-mota betetzen dira: bata, laburra; bestea, luzea.

- Hasteko, **galdelegi laburrean**, aztertu behar da ea proiektuak eragiten duen (bai edo ez) biztanleriaren euskararen ezagutza edo euskaldun-kopuruan, biztanleen euskararen erabileran edo gizarte-bizitzaren hizkuntzan, jardueren/zerbitzuen komunikazioan, eragin-eremuaren hizkuntza-paisaian, jardueren/zerbitzuen euskarazko eskaintzan-erabileran eta adierazpen publikoetako euskararen erabileran. Erantzun nagusia baiezkoa bada, orduan galdelegi luzea betetzen da.
- Gero, **galdelegi luzean**, bost ataletan banatuta, guztira 29 faktore daude jasota, eta horiek baloratu egiten dira: bizi-kalitatea, ekonomia, azpiegiturak, komunitatearen gizarte- eta kultura-bizitza eta biztanleriaren ezaugarriak. Galdelegia bi pausotan banatuta dago: lehenengoan, bai/ez erantzuten da; bigarrengoa, eragin linguistikoaren indizea kalkulatzen da,



4. Ebaluazio-prozesua

29.

betiere faktore bakoitzean 11 atributu baloratuta (besteak beste, izaera positiboa edo negatiboa, ondorioa, intentsitatea, hedadura, unea...). Atributu horietako bakoitza nolakoa den, puntu positiboak edo negatiboak batu egiten dira, eta eraginaren balioak -100 eta +100 bitartean mugitzen dira; horrela, eraginak izan daitezke onuragarriak (balio positiboak), neutroak edo negatiboak (balio negatiboak), puntuengarriak: erabat positiboak, positiboak, nahikoa positiboak, eraginik gabekoak, garrantzi txikikoak, moderatuak, larriak edo kritikoak.

Galdetegietako emaitzetan oinarrituta, ebaluazioaren emaitza izan daiteke bideragarria, bere horretan; bideragarria, neurri zuzentzaileekin; edo ez-bideragarria.

Tresna aplikatzen den bitartean, informazio osagarria jasotze aldera, hiru indize esanguratsu ere kalkulatzen dira ebaluazio-prozesuan zehar:

- **Hauskortasun-indizea:** indize honen helburua da edozein esku-hartzek eragin eremuaren egoera soziologikoa zer-nolako neurrian hauts dezakeen neurtea. Indize hau kalkulatzeko, ondorengo aldagaiak hartzen dira kontuan: biztanle-kopurua, euskaldunen ehunekoa, etxearen euskaraz egiten duten pertsonen ehunekoa eta euskararen inguruko egituraketa (Uemakoa izatea edo EBPN edukitzea). Balio batzuen arabera, batuketa eginda, hauskortasuna izan daiteke handia, ertaina edo txikia.
- **Planaren eraginaren indizea:** indize horren helburua da esku-hartzearen barruko ekintzek hizkuntzan izango duten eragina neurtea. Hainbat aldagai hartzen dira kontuan: herriaren tamaina, biztanle-kopurua, erakarpen-poloarekiko hurbiltasuna, euskaldunen ehunekoa, ama-hizkuntzaren ehunekoa, etxeko hizkuntzaren ehunekoa, euskara mantentzeko interesa... Balio batzuen arabera, batuketa eginda, eragina izan daiteke handia, ertaina edo txikia.
- **Euskararen ezagutzaren proiekzio-indizea:** Indize horrek bizitegi-asentamendu berriek euskararen ezagutzan izango duen eragina kalkulatzen du. Hipotesien gainean egiten da, betiere biztanle berrien euskararen jatorria eta ezagutza kontuan izanik, biztanle berriek zenbateraino



4. Ebaluazio-prozesua

30.

ezagutuko duten euskara, guztizko biztanleriari gehituta, herrian euskaldunak irabazi edo galdu egingo diren.

Galdetegietatik jasotako informazioarekin, faktoreak atributuen arabera balio batzuen bidez baloratuta, puntuatu egiten dira, eta eragina nolakoa den ezarri. Eragin hori azken hiru indizeen bidez osatzen da.

Oro har, tresna aplikatzean, **Uemak gomendatutako jarraibideak hartu ditugu oinarritzat** eta bertan adierazitako pausoei jarraitu diegu. Orain artekoekin alderatuta, ordea, Orioko ebaluazioak bazeukan berezitasun nabarmen bat: ingurune bakoitzerako aukera bat baino gehiago jartzea mahai gainean. Horrela, tresna aplikatzean, **zenbait zailtasun edo bat ez etortze ikusi edo identifikatu ditugu**, batez ere balorazio kualitatiboa eta kuantitatiboa alderatzean. Nolanahi ere, horiek guztiak aparteko dokumentu batean jaso ditugu, tresna etorkizunean are gehiago doitzeko eta hobetzeko balio dezakeelakoan.



5. Eragin linguistikoa

31.

5.1 Eragina orokorrean

Atal honetan, proiektuen eragina hizkuntzan zein edo nolakoa izan daitekeen azalduko dugu, lantaldeko kideen ezagutza eta tresnaren bidez ateratako puntuazioak uztartuta edo gurutzatuta. Horretarako, proiektuak banan-banan aztertu eta aldagaietan izango diren aldaketen ondorioz zer gerta daitekeen aurreikusten ahaleginduko gara, eta arreta berezia jarriko dugu Orioren egoera soziolinguistikoa zenbateraino alda daitekeen.

Atal hau irakurtzerako orduan, kontuan hartu behar dugu Eragin Linguistikoaren Ebaluazioaren helburua dela euskararen bizi-indarra zaindu, babestu, sustatu eta hedatzea. Udalerri euskaldunak estrategikoak dira ikuspegi horretatik, lurgune horietan euskara naturaltasunez transmititzen baita belaunaldiz belaunaldi eta herritarrek euskara erabiltzen baitute egunerokoan komunikazioko behar gehienetarako. Euskarak betetzen ditu udalerri horietan gizarteko lehentasunezko funtziak eta espazioak, eta, beraz, lurgune horiek euskararentzat arnascuneak dira.

Eragin Linguistikoaren Ebaluazioaren bidez, erakunde publikoen jardunean prebentzioaren ikuspegia txertatu nahi da, politika publikoek ez dezaten kalterik eragin bertako hizkuntza-komunitatearen garapenean. Aitzitik, komunitate horren bizi-indarra areagotzeko politikak sustatu nahi dira. Horrela, aurreikusten dugu, oro har, udalerri euskaldunetan Hiri Antolamendurako Plan Orokoren eragina kaltegarria izango dela beti edo gehienetan, hau da, hirigintza-egitasmo berriek eragin negatiboa izango dutela euskararen bizi-indarrean. Izen ere, etxebizitza berriak eraikitzean, kanpoko jendea erakar daiteke, eta biztanle berri horien euskararen ezagutza eta erabilera seguru asko baxuagoa izango da herrikoena baino. Horixe da azken urteetako bilakaerak dioskuna eta hori hartu dugu oinarri moduan aurrera begirako proiekzioak egiterakoan.

Plan Orokorra eta hemen aztertu dugun Plan Orokorraren Aurrerapena, berez, agiri oso mardul eta konplexuak dira, herri bateko etorkizuneko aukerak aurreikusten dituztenak. Orioko Plan Orokor osotik, bost proiektu nagusi hautatu genituen, etorkizunean eraginik handiena izan dezaketenak herrian, herriko bost



5. Eragin linguistikoa

32.

leku desberdinatan, eta horietako bakoitzean, gainera, aukera bat baino gehiago mahai gainean. Proiektu horietan, batzuetan ingurua bere horretan uztea planteatzen da, hau da, aldaketarik ez egitea, eta horrek hizkuntzan eraginik izango ez duelakoan, ez dugu ebaluatu. Gainerako aukeretan, berriz, batez ere **hizkuntzan gehien eragin dezakeen faktorea eraiki nahi diren etxebizitza-kopurua** izan da, horrek Oriotik kanpoko jendea erakar dezakeelako. Baino bestelako aldagai eta aktuazioek ere eragina izan dezakete (egiten diren dotazioek, jarduera ekonomikoek...), eta kasu batzuetan positiboa ere bai, batez ere lehendik herritarrek erabiltzen ez zitzuten inguruak jendea elkarteko eta harremanetan jartzeko prestatzen badira (pasealekuak, jolaslekuak, aisialdiko gune erakargarriak...).

Horrela, proiektu bakoitza hainbat alderditatik aztertu dugu, aukera bakoitzarekin, eta ikuspegi osagarria eman dezakelakoan, Eragin Linguistikoa Ebaluatzeko erabiltzen diren hiru indize gehitu dizkiogu: hauskortasunarena, eraginarena eta euskararen ezagutzaren proiekzioarena.

5.2 Indize osagariak

Indize hauen helburua da informazio osoagoa ematea eta etorkizunera begira beste alderdi batzuk ere eskura izatea erabakiak hartzeko.

5.2.1 Hauskortasun-indizea

Indize honen bidez neurtzen da udalerriak momentuan daukan izaera soziolinguistikoa galtzeko duen arrisku-maila. Hori kalkulatzeko, kontuan izaten da udalerriko biztanle-kopurua, euskaldunen ehunekoa, euskara lehen hizkuntza dutenen ehunekoa eta euskara babesteko edo iraunazazteko zenbateko babes duen (EBPN martxan izatea eta Uemako kide izatea). Horietako bakoitzari balio bat ematen zaio, eta batuketa eginda lortzen da indizea.

Orioren kasuan, hauek dira datuak eta emaitza.



5. Eragin linguistikoa

33.

ALDERDIAK	ESKALA	BALIOA
Orioren biztanle-kopurua	5 721	2
Euskaldunen ehunekoa	% 76	4
Lehen hizkuntzaren ehunekoa	% 64	3
Etxeko hizkuntzaren ehunekoa	% 52	2
Euskararen inguruko egituraketa	Uema+EBPN	0

Formula aplikatuta, guztira **5,7 puntu** ematen ditu, hau da, **hauskortasun-indizea txikia** (8-3 artean) da.

5.2.2 Proiektuaren eraginaren indizea

Indize honen bidez, neurtu nahi dena da proiektuek hizkuntzan nola eragingo duten. Horretarako, ondorengo alderdiak hartzen dira kontuan: biztanle-kopurua, erakarpen-poloarekiko hurbiltasuna, euskaldunen ehunekoa, euskara ama-hizkuntza dutenen kopurua, etxeko hizkuntza euskara dutenen ehunekoa, euskara mantentzeko interesa, proiektuak aurreikusten dituen etxebizitza berriak eta aurreikusitako jarduera ekonomikoen kokalekua.

Orioren kasuan, hauek dira datuak eta emaitza:

ALDERDIAK	ESKALA	BALIOA
Orioren biztanle-kopurua	5 721	5
Erakarpen-poloarekiko hurbiltasuna	Hurbilekoa	3
Euskaldunen ehunekoa	% 76	3
Ama-hizkuntzaren ehunekoa	% 64	4
Etxeko hizkuntzaren ehunekoa	% 52	5



5. Eragin linguistikoa

34.

ALDERDIAK	ESKALA	BALIOA
Euskara mantentzeko interesa	Uema+EBPN	0
Proiektuaren etxebizitza-kopuruaren ehunekoa	--	--
Jarduera ekonomikoen kokaleku-mota	--	--

Oharra: proiektuaren etxebizitza-kopuruaren ehunekoa eta jarduera ekonomikoen kokaleku-mota aldakorra da, desberdina proiektu batetik bestera. Horregatik, proiektu bakoitzean adierazi ditugu balioak.

Formula aplikatuta, proiektuaren etxebizitza-kopuruaren eta jarduera ekonomikoen kokaleku-motaren arabera aldatu egiten da emaitza; horrela, batzuetan **txikia** da (17 puntu, 8-20 artean) eta gainerakoetan **ertaina** (batzuetan, 21 puntukoa; batean, 24 puntukoa; ertaina da 21-34 puntu artekoa).

5.2.3 Euskararen ezagutzaren proiekzio-indizea

Indize honek laguntzen du kalkulatzen, etxebizitza berriak eraikiko diren kasuetarako, bizitegi-asantamendu berri horiek zer eragin izango duten euskararen ezagutzan.

Indize hori kalkulatzeko, honako datuak hartu ditugu kontuan. Batetik, egingo den etxebizitza horietan zenbat biztanle bizi daitezkeen kalkulatzeko, honako bi datuak hartu ditugu kontuan:

1. Etxebizitza bakoitzeko batezbesteko pertsona-kopurua: 2,63 pertsona (2014ko udal informazioaren araberako datua). Azken urteetan datu hori behera doa: 1997. urtean 3,23 zen batezbestekoa eta 2005. urtean, berriz, 2,73koa. Litekeena da datuak beherantz jarraitzea, baina ELE tresnak prebentzioaren ikuspegia lehenesten duenez, azken datua bere horretan mantendu dugu proiekziorako.
2. Etxebizitza hutsak: % 10 inguru (bigarren etxebizitzak kontuan hartu gabe, 2014ko udal-informazioaren araberako datua).



5. Eragin linguistikoa

35.

Datu horien arabera, hona hemen **eremu bakoitzean biziko litzatekeen biztanle-kopurua**:

EREMUA	AUKERA	ETXEBIZITZA-KOPURUA	ETXEBIZITZA OKUPATUAK	BIZTANLEAK
Dike	1. aukera	150	135	355
	2. aukera	200	180	473
	3. aukera	250	225	592
Palotak	2. aukera	766	689	1 813
	3. aukera	250	225	592
Mutiozabal	2. aukera	86	77	204
	3. aukera	50 (zehazteke)	45	118
Pilotalekua	1. aukera	30	27	71
	2. aukera	33	30	78
	3. aukera	44	40	104

Bestetik, ezagutzaren indizea kalkulatzeko garrantzitsua da biztanle horien jatorria, eta, beraz, euskara-ezagutza zein den jakitea. Datu hori garrantzitsua da, ezagutzaren proiekzioan bete-beteko eragina duelako. Gaindegiak Uemarentzat lurgune euskalduneko biztanleriaren jatorriari buruzko azterketa egin zuen duela gutxi, eta azterketa horren arabera, azken bi hamarkadetan nabarmen hazi da udalerritik kanpo jaiotako biztanleria lurgune euskaldunean. Oraindik kanpoan jaiotakoen batezbestekoa Gipuzkoa, Bizkaia, Araba eta Nafarroaren azpitik badago ere, azken bi hamarkadetan beste inon baino gehiago hazi da kanpotarren proportzioa lurgune euskaldunean. Lurgune euskalduna osatzen duten udalerriek, beraz,



5. Eragin linguistikoa

36.

beste udalerrietako biztanleria fluxu oso handia jaso dute, baita Oriok ere: 1991. urtean Orioko biztanleriaren % 57,2 Orion bertan jaiotakoa zen; 2013. urtean, berriz, % 48ra jaitsi da zifra hori, ia 10 puntu.

Eustateko azken urteetako datuak hartu ditugu erreferentziatzat biztanle berrien proiekzioa kalkulatzeko. Hona hemen datuak:

	2006	2013
Biztanleria guztira	4 774	5 721
Gipuzkoakoak	4 065	4 611
EAekoak (nagusiki Bizkaia)	70	128
EAEtik kanpokoak	639	982

2006-2013. urte bitarte horretan, populazioaren hazkundea % 20 ingurukoa da. Nondik eterri da hazkunde hori? Datuek diotenez, % 58 inguru Gipuzkoatik, % 36 inguru EAEtik kanpoko lurrealdeetatik eta % 6 inguru EAeko gainerako probintzietatik.

Gipuzkoako horietako batzuk oriotarrak dira, noski. Horretarako, populazioaren berezko hazkundea hartu dugu erreferentziatzat. 2006-2013 bitartean, 225 biztanle ingurukoa izan da. Beraz, Gipuzkoako % 58 horien artean, % 23 oriotarrei dagokie eta gainerako % 35 Gipuzkoako gainerako lurrealdeei. 2013an egin zen azterketaren arabera, gehienak Zarautz eta Donostiatik eterri ziren, baina baita Usurbil, Aia, Lasarte-Oria, Andoain, Zumaia, Asteasu eta Getariatik ere. Gehienak, beraz, Urola Kostatik eta Donostialdetik, eta bi eskualde horietako datu soziolinguistikoak hartuko ditugu erreferentziatzat.

Laburbilduz, hona hemen biztanleria berriaren jatorrirako erreferentzia moduan hartu ditugun datuak:



5. Eragin linguistikoa

37.

EREMUA	%	EUSKALDUNAK	IA EUSKALDUNAK	ERDALDUNAK
Orio	% 23	76	13	10
Urola Kosta	% 17,5	76	13	11
Donostialdea	% 17,5	44	27	29
Bizkaia	% 6	31	27	42
EAEtik kanpo	% 36	0	0	100

Horiek kontuan izanik kalkulatu ditugu, proiektu eta aukera bakotzean, euskararen ezagutzaren proiekzio-indizeak. Laburbilduz, proiektu **gehienetan ezagutzaren galera** izatea aurreikusten da, baina oso maila desberdinan: batean, adibidez, oso-oso txikia (-% 0,02); beste, batean, berriz, oso handia (-% 8,90), eta besteetan bi horien tartekoa.

Ebaluazio Taldean komentatu zen ezagutzaren proiekzioa ez ezik, interesgarria izango litzatekeela **erabileraren proiekzioa** ere egitea, biak alderatu edo gurutzatu ahal izateko, baina horretarako **ez dugu izan eskura behar bezalako daturik**.

5.3 Eragina proiektuka

5.3.1 Mutiozabal

Lehen aukeran, bere horretan uztea proposatzen denez, ez dauka eragin linguistikorik. Horregatik, ez genuen bete galdelegi luzerik eta ez genion eman puntuaziorik.

Bigarren eta hirugarren aukeretan, **etxeak egitea** dago aurreikusita, eta gaur egungo egoerarekin alderatuta, **zenbait aldaketa proposatzen dira bi aukeretan**. Gaur egun, oriotar gehienentzat Mutiozabal ingurua pasatzeko gunea da, inor gutxi joaten da propio bertara eta ez da egoteko leku bat; etorkizunean, bigarren eta hirugarren



5. Eragin linguistikoa

38.

proiektuak aurrera eramanet gero, oriotarentzako espazio bat sortuko litzateke, ibaiaren ondoan ibilbide edo egoteko leku ederrarekin.

Bigarren eta hirugarren aukeran, Mutiozabalen etxeak eraikitza aurreikusten da. Aurreikus daiteke etxebizitza horiek garestiak izatea, leku oso erakargarria delako (ibaiaren gaineko bistak, Oteizaren tailerra...) eta proiektuak berezko karga urbanistikoak izango dituelako.

Hirugarren aukeran ontziola mantentzea aurreikusten da, eta ekipamendu osagarriren bat jarriz gero, eragina izan dezake jendearen joan-etorriean, bai oriotarrenak, baita kanpotik etorriko direnenak ere; kanpotik etorritako batzuek, gainera, eragin positiboa izan dezakete (profil euskalduneko bisitariak badira, eskoletako ikasleak, adibidez).

Ondarearen ikuspegitik, herri-izaerari edo oriotartasunari begira, hirugarren aukeran, **garrantzitsua da hor lehengo 2 eraikin** (kontserba-fabrika eta ontziola) **uztea edo mantentzea**, Orio euskaldunagoa zen garaietara garamatzatelako: italiarrak etorri ziren (tarantinotarrak) kontserbagintzara Oriora, eta euskaraz ere ikasi zuten, halabeharrez. Bi eraikin horiek balio lezakete herriarekiko sentimenduan kateatzeko, erakartzeko, atxikitzeo, euskaraz hitz egiteko beharra areagotzeko.

Bigarren eta hirugarren aukerak alderatuta, badago aldea. **Bietan etxebizitzak egitea dago aurreikusita**, eta etxeak egiten badira, jendea etorriko da kanpotik Oriora bizitzera; horrek eragina izan dezake, eremu horretan ez ezik udalerri osoan (eskoletan, merkataritza-establezimenduetan, elkartean, herriko zerbitzuetan, etab.). Kanpotik datozenen euskara-gaitasuna, -erabilera eta -atxikimendua oriotarrena baino baxuagoa izango da eta, beraz, Orioko euskararen bizi-indarrean galera gertatuko dela aurreikusten dugu.

Bigarren aukeran, 86 etxebizitza eraikitza ekarriko luke, jarduera ekonomiko gutxi batzuk eta espazio libreak sortuko lirateke; garapena aldi bakar batean eraikitzeko modukoa izango litzateke, egun dagoena eraitsi ondoren. **Hirugarren aukera aurreko bien nahasketa da**: etxeak eraiki, gaur egun dauden eraikin batzuk mantendu eta jarduera ekonomiko gutxi batzuetarako azalerak eskainiko dira; ontziola berreskuratuko litzateke eta horrek emango lioke inguruari izaera bereizia;



5. Eragin linguistikoa

39.

gainera, bere konplexutasuna dela eta, hiru unitate ezberdinetan banatuko litzateke zonaldea, eta, horri esker, denboran luzatu egingo litzateke zonaldearen garapena. Horrela, hirugarrenean, aukera handiagoa egongo da integratziorako eta behar baldin bada neurriak zuzentzaileak hartzeko, aukera gehiago emango dituelako neurriak hartzeko.

Puntuazioei begiratuta, antzeko emaitzak ematen dituzte bi aukerek, eta eragina, oro har, **moderatuta** da bietan. Baino **hirugarren aukerak hainbat berezitasun eta abantaila baditu hizkuntza-eraginaren aldetik** (temporalizazioa, identitatea eta ondarea nabarmentzea...), **erakargarriagoa** egiten dutenak, eta eragina ere garrantzi txikiagokoa da batez ere komunitatearen gizarte- eta kultura-biztan.

ALDERDIAK	2. AUKERA	3. AUKERA
Bizi-kalitatea	Moderatua (-37)	Moderatua (-33)
Ekonomia	Moderatua (-33,20)	Moderatua (-29,60)
Azpiegiturak	Moderatua (-33,50)	Moderatua (-29)
Komunitatearen gizarte- eta kultura-bizitza	Moderatua (-35,50)	Garrantzi txikikoa (-18,80)
Biztanleriaren ezaugarriak	Moderatua (-37)	Moderatua (-34,33)
Hauskortasun-indizea	Txikia (5,7)	Txikia (5,7)
Eraginaren indizea	Ertaina (21)	Ertaina (21)
Proiekzio-indizea	% 75,10 (-% 0,90), galera	% 75,67 (-% 0,33), galera

5.3.2 Dike

Inguru hau garrantzitsua da oriotarrentzat, oso denbora laburrean bereganatu egin dutelako, batez ere ibaiertzeko pasealekuaren bidez, eta interes handiarekin begiratzen diote herritarrek inguruari, zer egingo den hor.



5. Eragin linguistikoa

40.

Hiru aukeretan **ingurua garatzea** planteatzen da, baina maila desberdinetan, bakoitzak badauka berezitasunen bat. **Lehen aukeran**, izaera tertziarioko **jarduerak** daude, baina azalera txikikoak; **bigarrenean**, berri, **alde nabarmenena** **intentsitatea da**, bizitgia izango litzateke guztia, baita etxebizitzen beheko solairuak ere, eta ez da espazio publiko zabalik proposatzen (beraz, topagunerik ere ez); **hirugarrenean**, azkenik, azalera tertziariokorako metro koadro batzuk aurreikusten dira (gutxi), eta horrez gain, **Arozena dotazionala izatea dago aurreikusita**. Dotazio horri dagokionez, aukeretako bat da zahar-etxea izatea, baina dotazio-izaera izateko, aurretik Udalak bere egin eta berreskuratu egin beharko luke eta ez litzateke izango Oriora bakarrik begirakoa, Oriok ez daukalako hainbesteko ekipamenduren beharrik; horrek kanpotarrak erakarriko lituzke, bisitan-eta. Dotazioan, beste aukeretako bat erabilera anitzeko aretoa eraikitzea da. Nolako dotazioa egiten den, eragina desberdina izan daiteke hizkuntzaren aldetik: erabilera anitzeko areto batek ez dakartzza zahar-etxeak adinako arriskuak, ez du ematen hainbesteko eragin kaltegarria izan dezakeenik.

Hiru aukeren arteko **alde nagusia, batez ere, etxebizitza-kopuruan** dago, eta denak batera eraikitzea aurreikusten da aukera guztietan. Babes Ofizialeko Etxebizitzei dagokienez (% 20 inguru izango dira), Orioko Udalak kontrolatuko du noiz eraiki, herriko jendeak behar hori noiz izan dezakeen aurreikusita. Azkenik, 3. aukerako etxebizitzek karga handiagoa izango dute, batez ere Arozenagatik.

Aukera bakoitzaren eraginari begiratuta, ikus daiteke oro har **moderatua** dela nagusi, baina 3. aukeran etxebizitza gehien egin behar delako eta horrek kanpoko jende gehiago ekarriko duelako, batzuetan **eragin larria** ekar dezake Zenbat eta etxebizitza gehiago eraiki, euskararen ezagutzan ere **galera handiagoa** izatea aurreikusten da, gainera. Azkenik, hirugarren aukeran, Arozenan egiten den dotazioak kanpoko jende gehiago edo gutxiago erakar dezake, eta horrek zuzenean eragin hizkuntzan.

ALDERDIAK	1. AUKERA	2. AUKERA	3. AUKERA
Bizi-kalitatea	Moderatua (-38)	Moderatua (-44)	Larria (-56)



5. Eragin linguistikoa

41.

ALDERDIAK	1. AUKERA	2. AUKERA	3. AUKERA
Ekonomia	Moderatua (-33,4)	Moderatua (-38,2)	Moderatua (-47,8)
Azpiegiturak	Moderatua (-35)	Moderatua (-41)	Larria (-52,33)
Komunitatearen gizarte- eta kultura-bizitza	Moderatua (-37)	Moderatua (-43)	Larria (-54)
Biztanleriaren ezaugarriak	Moderatua (-37,40)	Moderatua (-42,40)	Moderatua (-49,57)
Hauskortasun-indizea	Txikia (5,7)	Txikia (5,7)	Txikia (5,7)
Eraginaren indizea	Txikia (17)	Txikia (17)	Txikia (17)
Proiekzio-indizea	% 74,15 (-% 1,85), galera	% 73,47 (-% 2,53), galera	% 72,77 (-% 3,23), galera

5.3.3 Palotak

Horrela deitzen zaio inguru horretan zabaltzen zituztelako itsasontzietako sareak, palo edo makilen gainean. Gaur gun baratzeek hartzen dute eremua, eta Orioko herrigunean urbanizatu gabe geratzen den garatu gabeko erribera-zati bakarra da.

Lehen aukeran, bere horretan uztea proposatzen da, ezer ere egitea, eta, beraz, horrek ez du izango eragin linguistikorik eta ez dugu ebaluatu.

Bigarren eta hirugarren aukeretan **ingurua garatzea** aurreikusten da, eta biek izango dute eragina hizkuntzan, baina oso maila ezberdinean, **etxebizitza-kopuru desberdina** aurreikusita dagoen neurrian (bigarrenean, 766 etxebizitza, hau da, egungo erratioaren arabera 2 000 bizilagun inguru; bigarrenean, berriz, 250, hau da, 592 bizilagun inguru), eta **azaleran** ere bai (bigarrenak dena hartzea proposatzen du: hirugarrenak, berriz, erdia baino ez).



5. Eragin linguistikoa

42.

Bada, gainera, oso kontuan izan beharreko beste alderdi bat: lurzoruaren klasifikazioa aldatu egingo denez, legearen arabera, eraikiko liratekeen etxebizitzen **%75ek babes ofizialekoak** izan beharko lukete; Orion, ordea, eskaera ez da hainbestekoa, ez dago baldintzak betetzen dituen hainbeste jende, eta **etxe horietara etorriko litzatekeen jende gehiena kanpokoa litzateke**, eta pentsatzeko da profil honetakoia izango dela: gaztea, errenta baxukoa, agian EAETik kanpokoak... Horrek guztiak eragina izango du komertzioetan eta eskoletan, elkartean... Halaber, bertako tradizio eta kultura euskaldunean ere izan dezake eragina, eta hori apaldu.

Oro har, euskararen **ezagutzan eta erabilera galera handi xamarra gerta daiteke**. Etxeak eraikiz gero, proiektu bat edo bestea egin jende asko etorriko da Oriora bizitzen eta ezinbestean neurriak aurreikusi beharko dira arnascunea babesteko. Bi kasuetan dotazio publikoak eraikiko lirateke, baina horien izaera ez da oraindik zehaztu.

Hizkuntza-eraginari dagokionez, **bi aukeren eragina larria da arlo guztietan**, bigarrenarena are larriagoa, eta **ezagutzaren oso galera handia** ekarriko luke (ja % 9ko).

ALDERDIAK	2. AUKERA	3. AUKERA
Bizi-kalitatea	Larria (-72)	Larria (-65,70)
Ekonomia	Larria (-67,80)	Larria (-53,60)
Azpiegiturak	Larria (-69,67)	Larria (-54)
Komunitatearen gizarte- eta kultura-bitzitza	Larria (-65,83)	Larria (-53,20)
Biztanleriaren ezaugarriak	Larria (-68,60)	Larria (-54,20)
Hauskortasun-indizea	Txikia (5,7)	Txikia (5,7)
Eraginaren indizea	Ertaina (21)	Ertaina (24)



5. Eragin linguistikoa

43.

Proiekzio-indizea

% 67,10 (-% 8,90), galera

% 72,76 (-% 3,24), galera

5.3.4 Frontoia

Frontoia Orioren erdigunean dago, eta bertan egiten den edozein aktuaziok eragin linguistikoa izango du, eta alderdi gehienetatik begiratuta, **positiboa**. Aspalditik dabil Orioko Udal ingurua biziberritu nahian, eta frontoitik hurbil ezarri dira, besteak beste, kultur etxea, ludoteka, musika-eskola... Horiekin ardatz bat egin da, eta frontoia kenduz gero, segida emango zaio. Proietkuetan frontoi txiki bat ere planteatzen da, erabilera anitzekoa, aurreko ardatzarekin lotuko litzatekeena. Horrela, proietkuek eragin ona izan dezakete kaleko giroa sortzen edo areagotzen, herritarra elkartzeko eta harremanetan jartzeko guneak sortu nahi dira, frontoi txikia ere bilgune izan daiteke...

Hiru aukeretan **etxebizitza gutxi eraikiko dira**. Gainera, gaur egun daudenak (okupatuak izan edo ez) ordezkatu egingo dira. Espero da kanpoko jende gutxi ekartzea leku honek, baina bertakoentzat oso erakargarria da. **Lehen aukerak espazio publikoari garrantzi handiagoa** ematen dio, funtzi bat emanez eta espazio publiko ezberdinak lotuz, horien arteko sare bat sortuz; **bigarren aukeran** ere espazio publikoak garrantzia hartzen du, baina **sarea osatzeko zaitasun handiagoak** ditu; azkenik, **hirugarren aukeran etxebizitza gehiago eta espazio publiko txikiagoa** aurreikusten ditu.

Uste dugu proiektu honek **eragin positiboa izango duela hizkuntzan**. Herriguneko inguru hori berregokitzeak jende berri gutxi ekarriko du ingurura, baina bertakoek alde ez egitea ekar dezake aldi berean eta etxebizitza horiek erakargarriak izango dira batez ere oriotarentzat. Espazio publikoek garrantzi handia hartuko dute (lehen aukeran batik bat), eta horrek sinergia positiboak sortzen lagun dezake, jendea harremanetan jartzeko espazioak sortuko direlako, aisiaidirako guneak, beste ekipamendu batzuekin loturak....

Hiru aukerei begiratuta, hizkuntzaren aldetik aldea oso txikia da batetik bestera,



5. Eragin linguistikoa

44.

positiboa da, eta **oso galera txikia** aurreikusten da aukera guztietai.

ALDERDIAK	1. AUKERA	2. AUKERA	3. AUKERA
Bizi-kalitatea	Positiboa (+34)	Positiboa (+32)	Positiboa (+32)
Ekonomia	Garrantzi txikikoa (-15)	Garrantzi txikikoa (-15)	Garrantzi txikikoa (-15)
Azpiegiturak	Moderatua (-30)	Moderatua (-30)	Moderatua (-30)
Komunitatearen gizarte- eta kultura-bizitza	Positiboa (+35)	Positiboa (+30)	Positiboa (+30)
Biztanleriaren ezaugarriak	Positiboa (+38,50)	Positiboa (+32)	Positiboa (+32)
Hauskortasun-indizea	Txikia (5,7)	Txikia (5,7)	Txikia (5,7)
Eraginaren indizea	Txikia (17)	Txikia (17)	Txikia (17)
Proiekzio-indizea	% 75,98 (-% 0,02), galera	% 75,94 (-% 0,06), galera	% 75,76 (-% 0,24), galera

5.3.5 Aizperro

Bigarren aukeran, bere horretan uztea planteatzen da, ezer ere ez egitea, eta beraz, horrek ez du izango eragin linguistikorik eta ez dugu ebaluatu.

Lehen aukerari dagokionez, **industrialdea eraikitzea** planteatzen da. Bere garaian, Orion industrialdeak non ezarri ikusteko azterketa bat egin zenean, ikusi zen aukera on-onik ez zegoela, baina aukera horietatik, **onena Aizperrokoak zela**, nahiz eta jakinaren gainean egon ingurumenaren aldetik eragina daukala.

Aizperroko industrialdea batez ere **enpresa txikientzat** izango da. Horietako batzuk, gaur egun Orioko herrigunean edo inguruetan daudenak izan daitezke, eta kanpotik ere etor daiteke baten bat, batez ere kokaleku ona daukalako,



5. Eragin linguistikoa

45.

autopistaren sarrera-irteeratik gertu. Kanpotik jendea etorriko da lanera eta horiek herrigunera ere jaitsiko direla aurreikusten da (jatorduak, erosketak, enkarguak... egitera), baina pentsatzeko da lagun horiek ez direla jarriko herrian bizitzen.

Industrialdean, seguru asko, **lanpostu berriak** sortuko dira, batzuk oriotarrentzat eta beste batzuk kanpotarrentzat, eta jende ugari arituko da lanean; bizitzera, aldiz, aurreikus daiteke ez duela ekarriko jende asko, batez ere lanera etortzeko edo mugitzeko hainbeste erraztasun daudenean gaur egun.

Hizkuntzaren aldetik **eragina ez da hainbestekoa izango**. Neurriak hartu beharko dira, batez ere bertan ezartzen diren enpresak eta langileak kanpokoak izanez gero, baina ez da aurreikusten eragin handirik izango duenik arnascunean.

Oro har, hizkuntzaren aldetik proiektuak eragin **moderatua** dauka.

ALDERDIAK	1. AUKERA
Bizi-kalitatea	Moderatua (-38)
Ekonomia	Moderatua (-31,67)
Azpiegiturak	Moderatua (-35)
Komunitatearen gizarte- eta kultura-bizitza	-
Biztanleriaren ezaugarriak	Moderatua (-38)
Hauskortasun-indizea	Txikia (5,7)
Eraginaren indizea	Txikia (17)
Proiekzio-indizea	-



6. Ondorioak eta neurri zuzentzaileak

46.

6.1 Ondorio orokorrak

Arestian adierazi dugunez, Hiri Antolamendurako Plan Orokoren **eragina kaltegarria** da arnaspuneentzat ia kasu guztieta, baina zer aukera hautatzen eta gauzatzen den, oso maila desberdinekoia izango da eragina, eta, maila horren arabera, errazagoa edo zailagoa izango da eragina aurreikustea eta neurri zuzentzaileak proposatzea eta hartzea.

Hiri Antolamenduko Plan Orokorrak, berez, **herria haztea edo handitzea dakar**, eta horretarako aukerak aurreikustea edo identifikatzea. Hainbat aktuazio proposatzen dira, baina oso desberdinak dira zenbait alderditatik begiratuta: aktuazioa herriko zer lekutan den, eragindako eremuaren azalera, eraikitza aurreikusitako etxebizitza-kopurua, herritarrontzat espazio edo gune berriak zabaltzea (gaur egun disfrutatzen ez dituztenak), hizkuntzaren ezagutza eta erabileran izan dezaketen eragina....

Oro har, hizkuntzan eragina **moderatua** edo **ertaina** da proiektu eta aukera gehien-gehienetan, eta batez ere eragina nabarmentzeko modukoa da bizi-kalitatean, azpiegituraren, komunitatean eta biztanleriaren ezaugarriean. Baina bereziki azpimarratzeko da Paloten proiektua; izan ere, eragina **larria** da, batez ere guzti garatuz gero, Oriora kanpotik bizitzera etor daitekeen bizilagun-kopuruarengatik, eta hori argi ikus daiteke ezagutzaren proiekzio-indizearen bidez.

Zenbait proiektuk, ordea, **eragin positiboa** izan dezakete arnaspunean, batez ere oriotarrei aukera ematen bazaie kalea bereganatzeko, harremanetarako guneak aurreikusiz gero (paseatzeko edo oinez ibiltzeko lekuak, haurrek jolasteko lekuak, belaunaldi desberdinak elkarrekin egoteko, kirola egiteko ...). Halaber, proiektu batzuk Orioren eta oriotarren izaera eta nortasuna indartzeko baliagarriak izan daitezke (ontziola, kontserbagintzako lantegia...), eta hori ere kontuan izan behar da.

Ezinbestean aurreikusi behar bada hazteko aukera eta nonbaiten etxebizitzak eraiki behar badira, garrantzitsua da garbi izatea aukera horiek zer eragin izan dezaketen hizkuntzan eta horrelaxe **mailakatzea**, aukera onenetik edo erakargarrienetik okerrenera. Horrela...

- **Frontoian** aurreikusitako lanek eragin positiboa izan dezakete hizkuntzan, batez ere espazio publikoa sortzeari ematen bazaio



6. Ondorioak eta neurri zuzentzaileak

47.

lehentasuna, herritarrak elkartzeko eta harremanetan jartzeko guneak sortzen eta indartzen badira, gaur egun badauden beste ardatz batzuekin batera.

Gainera, pentsatzekoa da horko etxeak batez ere erakargarriagoak izango direla oriotarrentzat kanpotarrentzat baino, eta etxe horiek eraikitzeak ez luke izango hainbesteko eraginik.

- **Mutiozabalen**, ingurua berreskuratzearkin batera, oriotarrei gaur egun erabiltzen ez duten beste inguru bat eskaintzeko aukera dago, parke edo pasealeku baten bidez. Bigarren eta hirugarren aukerak aztertuta, erakargarriagoa edo hobea da hirugarren, hainbat arrazoirengatik: lanak faseka egiteak aukera ematen du neurri zuzentzaileak pixkanaka ezartzeko, ondarearen eta oriotartasunaren aldetik irabazi egingo luke herriak...
- **Diken**, hiru aukeretatik, lehena da hizkuntzan eragin txikiena izango lukeena, eta hirugarrena handiena. Nolanahi ere, garrantzitsua da zer dotazio-mota egiten den, eta horrek nola eragin dezakeen kanpotarrak ekartzea.
- Azkenik, **Palotetako bi aukerak** daude, biak ere eragin handikoak hizkuntzan, zenbat eta etxe gehiago egin, orduan eta nabarmenagoa eta kaltegarriagoa.

Aizperroko proiektuan ez dago aurreikusita etxebizitza beririk, eta horregatik aparte jarri dugu hemen. Aizperron batez ere jarduera ekonomikoak bultzatu nahi dira, eta ez dugu aurreikusten proiektuak bizilagun berrien kopuru adierazgarririk ekarriko duenik Oriora. Hau da, ez dugu uste Aizperroko proiektuak besteek adinako eragin linguistikorik izango duenik.

6.2 Neurri zuzentzaileak

Ondoren hainbat proposamen edo neurri zuzentzaile adieraziko ditugu, projektuek Orion eta oriotarrengan izan dezaketen eragin linguistiko kaltegarria zuzentzeko edo leuntzeko. Nolanahi ere, esan beharra dago horietako **gehien-gehienak dagoeneko martxan edo aurreikusita** dauzkala Orioko Udalak, EBNren bidez, eta horietako asko sendotuta eta egonkortuta, gainera.

Neurri zuzentzaile ororen gainetik, hasteko, azpimarratzeko da, **arnasgunea aitorru eta babestuko dituen lege edo arauen beharra**, batez ere gerora neurri



6. Ondorioak eta neurri zuzentzaileak

48.

zuzentzaileak ezarri behar badira.

Hirigintza

- Eragin negatiboa izan dezaketen **proiektuak denboran luzatzea**, inpaktu leunagoa izan dadin, edo ezarri ahala neurriak hartu ahal izan daitezen.
- **Harremanetarako espazioak sortu eterri berriak herrian integratzea errazteko** eta **oriotarrak elkarren artean harremanetan jartzeko**. Era berean, heldu eta txikiak elkarrekin egon daitezkeen espazio eta ekipamenduak aurreikusi: jolasguneak, pasealekuak, aisiaidikoak, eremu batzuk oinezkoentzat jartzea...
- Espazio publikoek gain, dotazio publikoetan ere **adin-nahasketa eman dadin funtzioka nahastea**; hau da, dotazioetan erabilera bakarrak ekiditea, erabilera bat baino gehiago ematea dotazioari.
- Lehentasuna ematea **gazteek eta haurrek erabiltzeko dotazioei**; izan ere, adin-tarte horietakoak dira euskara gehien erabiltzen dutenak.
- Haur-parkeak edo **jolaslekuak** eginez gero, **ez izatea oso haur txikientzat bakarrik**, baizik eta aukera ematea edo prestatzea ume helduagoek ere erabiltzeko.
- **Dotazio publikoetako jarduerek espazio publikoan eragina izatea**: kanpo-barne harremana aberasteak jardueren hedapena ekar dezake, eta batez ere eraginkorra da kultur eta kirol-arloetan.
- Etxebitzitza berriak eraikitzerakoan **bizilagunen arteko harremanak sustatzen lagun dezaketen espazioak aurreikustea**, espazio publikotik pribatura bidean tarteko espazio hurbilak. Adibidez, espazio publiko eta berdeguneekin harremanetan, baratze edo lorategi komunitarioak sortu, edo etxebitzitza-eraikinetan aterpe edo lokal komunak, guztientzakoak.
- Etxebitzitza-eraikin berrietan, bizilagunek elkar ezagutzeko eta elkarrekin harremanetan jartzeko, **atari bakoitzeko bizilagun-kopurua zaintza** edo mugatzea, harremanak ezartzeko eta anonimotasuna ekiditeko.
- **Etxebitzitzak eraikitzea beharren arabera** eta hizkuntzaren ikuspegitik



6. Ondorioak eta neurri zuzentzaileak

49.

inpaktu gutxienetan duen egitasmoetatik abiatuta.

- Etxebizitza berriak eraiki aurretik, **lehendik hutsik edo erabili gabe daudenak merkatura daitezen sustatzea.**

Udal-hautetsiei

- Udal-hautetsiei eta –teknikariei arnascuneez eta Lurralde Antolaketaz **prestakuntza bideratzea**, bereziki legegintzaldi hasieran, ardura politikoa duten guztientzat, lurralte-plangintzak duten eraginez eta ondorioez jabetu daitezen.

Oriortartu berriei

- Oriortar berriei **harrera-planak** egitea. Harrera-planetan ardatza euskara izatea eta planean Orioko izaera euskaldunaren eta hori geroratzearen garrantzia azpimarratzea.
- **Orioko Curriculumaren berri ematea**, Orioren ezaugarriez eta berezitasunez jabetzeko.
- Etorri berrien eta bertako biztanleen arteko **harremanak sustatzeko ekintzak** garatzea.
- Etorri berrien **hizkuntza-ezagutza bideratzeko neurriak** hartzea. Euskaraz ikasteko diru-laguntzak, sustapen-kanpainak, mintzalagunak...
- **Euskara-ikastaroak ahalik eta gehien egokitzea** etorri berriei: orduak, ordutegiak, prezioak...
- **Sentsibilizazio-kanpainak** egitea etorri berrientzat.

Oriortarren erabilera

- **Belaunaldien arteko tайлerrak** egiten jarraitza eta indartza, gazteen eta helduen artekoak, elkarri gauzak erakusteko eta irakasteko. Gaur egun eskoletatik bideratzen da. Gaur egun harreman batzuk probokatu edo bideratu egin behar dira, eta oso interesgarriak dira elkar ezagutzeko, harremanak sendotzeko, euskararen eta euskalkiaren transmisioarako...



6. Ondorioak eta neurri zuzentzaileak

50.

- **Sentsibilizazio-/motibazio-saioak** egitea herritarrentzat, euskararen erabilera atzera egin ez dezaten eta eterri berrieik ikasteko beharra senti dezaten.
- **Orioko Curriculumaren berri ematea**, herri-izaera eta talde-sentimendua indartzeko.
- Euskaraz egiten duten **oriotar erreferentzialak nabarmentzea eta prestigiatzea**, arlo guzietan: kirola, ekonomia, kultura...
- Euskara ikastaroak, harrera-ikastaroak eta mintzalagun-egitasmoa eta antzezoak egitea herritarrekin sortuko diren **hizkuntza-ohiturak** euskarazkoak izango direla bermatzeko.
- **Errefortzu-klaseak** ematea ikasle eterri berriei.
- **Hizkuntza-portaera lantzeko ikastaroak** egitea, euskaldunen ahalduntzea lantzeko.
- **Orioko euskara prestigiatzea** eta eredugarritzat hartzea.
- **Oriotarren arteko harremanak** bideratzen eta sustatzen dituzten ekintzak antolatzea.

Establezimenduak eta enpresak

- Babestutako etxebizitzen kasuan, **prozesu osoa euskaraz garatzea**.
- Etxebizitza libreen sustatzaileei eskatzea **eskaintzaren berri lehen-lehenik tokiko komunikabideetan** eta euskaraz eman dezatela.
- HAPOko projektuetan ezartzeko interesa duten enpresa, saltoki edo establezimenduetan (frankiziak barne) **euskararen erabilera-plan edo ziurtagiria izatea baloratzea** eta lehentasuna ematea. Horietan **hizkuntza-paisaia euskaraz** jartzeko irizpideak zehaztea eta lagunza eskaintzea.
- Hitzarmenak, aholkularitza eta laguntzak bideratzea **euskara-planak** garatzeko, eta bereziki industrian eta zerbitzuetan.
- **Ekipamendu eta dotazioetan hizkuntza-irizpideak** ezartzea, bai langileen



6. Ondorioak eta neurri zuzentzaileak

51.

kontratazioan, baita sortzen diren euskarietan, hzikuntza-paisaian... ere.
Adibidez, ontziolan, Arozenan...

- **Onurak eskaintza bertako langileak kontratatzeten ditutzenei.**
- **Onurak** eskaintza euskaraz lan egiten dutela edo zerbitzua euskaraz eskaintzen dutela ziurtatzen duten enpresei.

Elkartea

- Herri-erakundeekiko **harreman-hizkuntza** zehazteko hitzarmenak sustatzea.
- **Funtzionamendu-irizpideak** zehaztea herriko talde eta elkarretoan (guraso-, kultur-, kirol-taldeak...), orain arte bezala euskaraz funtzionatzen jarraitzeko.
- **Hitzarmenak**, aholkularitza eta laguntzak bideratzea euskara-planak garatzeko.

Bisitariak

- Bisitariak ugarituko diren kasuetarako, **sentsibilizazio- eta kontzientzia-zio-saioak** herriko merkatarietkin, euskaraz funtzionatzen jarraitzeko.

Kultura

- Ekipamenduetan eta kultur eta kirol-zentroen **programazioan euskarazko ekintzak** antolatzea eta horien segimendua egitea.
- **Ekipamendu publikoetako langileekin (liburutegia, kiroldegia...) lan berezia egitea**, bereziki etorri berriei euskaraz egiteko eta biztanle berriek duten euskara-gaitasuna erabiltzeko lagundu diezaieten.

Ikasleak

- Haurrak herriko ikastetxeetan (D ereduan) **matrikulatzeko kanpainak eta erraztasunak eskaintza**, Orion bertan eta euskaraz matrikula daitezen (Donostiara joan gabe, adibidez).
- Ikasle etorri berriei **errefortzua** eskaintza.



6. Ondorioak eta neurri zuzentzaileak

52.

- Ikasleen **gurasoei euskara ikasteko edo hobetzeko eskaintza** berezia egitea.
- Familietako hizkuntza-ohiturak aldatzeko **familia-lagun edo antzekoak** antolatzea.
- Aisialdirako **euskarazko eskaintza erakargarria** egitea.
- **Harrera-planak eskoletan**, ikasle eta gurasoentzat.
- Hizkuntza-portaerak lantzeko **arnasguneetako tailerrak** ematea ikasleei (Uemarenak), ahalduntzeko.
- Etorri berrien inpaktua gutxiagotzeko, **bi eskolen artean banatzeko neurriak** hartzea.

6.3 Neurri zuzentzaileak: epeak eta segimendua

HAPOaren proiekturen batekin aurrera egitea erabaki eta memoria honetan proposatzen diren neurri zuzentzaileak ezarri behar badira, garrantzitsua da neurri horiei epeak, adierazleak, arduradunak eta abar jartzea, baita horiei segimendua egiteko sistema lantzea eta ezartzea ere. Horretarako, batzorde bat era daiteke, non ordezkatuta egongo diren Orioko Udal eta herriko hainbat gizarte-eragile.



6. Proiektuaren balorazioa

53.

Ebaluazio Taldearen azken bileran proiektua osorik baloratu genuen. Horretarako, hasteko, baloratu beharreko alderdiak proposatu genituen, eta ondoren elkarrekin baloratu genituen. Iritziak personalak izan ziren, baina horiekin guztiekin bat etorri ginen, oro har, gainerakook, eta taldekozat ere har daitezke. Hauxe izan zen emaitza.

Prozesua

- “Eragin Linguistikoaren Ebaluazioa une egokian egin dugu. Orain behar zuen, alternatibak baloratu behar direnean, Aurrerapenaren dokumentuaren baitan. Orain da garaia, orain da baliagarria, eta ez gero, *a posteriori*”.
- “Momentu prozesal egokian egin da, une egokian, erabakia hartzerakoan eta ez hartutakoan”.
- “Tresna erabiltzean zaitasunak izan ditugu, gabeziak badituela ikusi dugu, alderdi batzuetan herren dabilela. Tresna konplexuegia da, eta simpleagoa izan behar du”.
- “Prozesua trinkoa izan da oso, hilabetean di-da egitekoa. Ez da samurra izan, baina aldi berean epe estu horrek aberasgarria izatea eragin du, jarraian egin delako”.

Emaitza

- “Txostenean ondo jasota dago egin nahi zena eta egin dena, zer lortu nahi zen eta zer lortu den. Garbia da. Ahulezia dago neurri zuzentzaileetan, badakigu, ez zaigulako gauza beririk okurritzen, ez delako erraza, baina hori ere joango da pixkanaka osatzen, beste leku batzuetan antzekoak egin ahala”.
- “Garrantzitsua da balizko eraginak orain mahai gainean izatea, eta ikustea zer neurri zuzentzaile dauden hartuta eta zein gehiago hartu behar diren. Hirigintzako erritmoa motela da, HAPOa onartzerako denbora luze joango da oraindik (pare bat urte inguru), baina bitartean neurriak martxan jar daitezke Euskaratik, ikusi eta aztertu zeinek funtzionatzen duten, baita beste leku batzuetan egiten diren proposamen berriak hartu ere. Horri segimendua egiteko dagoeneko badaude baliabideak. Gure lana (Ebaluazio Taldearena) hemen bukatzen da”.

Bilerak

- “Baliagarriak izan dira, eraginkorrik, espero baino arinagoak”.



6. Proiektuaren balorazioa

54.

- “Ondo egin ditugu lanak, bideratzaileek asmatu dute”.
- “Bileretan lan handia egin dugu, eta horrek etxeko lanak erraztu eta arindu dizkigu”.
- “Ondo moldatu gara, ondo funtzionatu dugu”.

Tresna

- “Lanak sinplifikatu egin behar dira, ezin du izan hain konplikatua”.
- “Tresna egokitu egin behar da, berritu. Bestela, trantpetan ari baldin bagara, zerbaite ondo ez dabilen seinale da, egokitu beharra dagoela”.

Espektatibak

- “EZ neukan fede handirik eta pesimista nintzen hasieran, baina zorionez ez nuen asmatu”.
- “Uste baino interesgarriagoa izan da, baliagarria”.
- “EZ nuen uste hainbeste sakonduko genuenik, eta espero baino sakonago aritu gara. Uste baino interesgarriagoa izan da”.

Giroa

- “Giro onean egon gara, oso ondo moldatu gara”.

Koordinazioa

- “Eraginkorra”
- “Googledrive bidez lan egiteak lagundu egin du, lan egiteko moduak, gehiegi kargatu gabe, eta besteek zer egin duten ikustea lagungarria izan da”.
- “Epemuga izatea ondo egon da, presio hori izateak lagundu egin du. Garai txarra zen (abendua, urtearen amaiera, beste lan asko...), baina, hala ere, arinak izan dira bilerak, eramangarriak. Ez dugu haririk galdu, jarraitu eta jarraitu egin dugu, ez da izan gorabeherarik”.

Taldea

- “Proposatu genuenean, ikusten genuen taldekide bakoitzak ekarpen bat egin behar zuela taldean, bere ikuspuntutik: Orioko hirigintza, Orioko euskara,



6. Proiektuaren balorazioa

55.

tresna...; taldekideon implikazioa oso handia izan da: guztiok egon gara bilera guztietan, denbora eskaini diogu bilerei eta bileretatik kanpo egin beharrekoei, ez dugu lehenago alde egin beharrik izan, bakoitzak dakienetik berea eman du... Bikain”.

- “Ondo dago ELE betetzeko lantaldean arkitektura-ikuspegia emateko norbait ere egotea, beharrezkoa. Bideratzaile-taldean dualidadea importantea: euskara-ikuspegia eta arkitektura-ikuspegia uztartzea”.